

# B euskararen BERRIPAPER

## Kirolean ere, euskaraz

**E**uskararen erabilera gizarteratu behar dela eta, gero eta eremu gehiagotara zabalduta behar dela esan ohi da; eta, izan ere, halaxe da, euskaldunak gero eta gehiago badira ere, euskaraz egiten dutenen kopurua ez baita maila berean hazi. Euskaldunei, beraz, euskaraz egiteko guneak eskaini behar dizkiegu bizitzaren eremu desberdinetan. Eremu guztiak dira garrantzizkoak, baina batzuk lehentasunezko helburu izan behar ditugu; kirolarenak, besteak beste.

Alor hau asko aldatu da azken urteotan, bai ohituren aldetik, bai egituren aldetik. Kirola egunetik egunera sakonago sartuz doa aisialdian; gazteen artean ere, gero eta gehiago dira eskolaz kanpoko ekintzaren bat aukeratzera-koan kirolari eusten diotenak.

Eskaera horri erantzuteko, eskaintza ere asko ugaritu da. Labur esanda, kirol egituren aldaketak kirol ohiturak aldatzearen eskutik etorri dira.

Kontua da, kirolak gure artean izan duen bilakaeran gaztelania izan dela nagusi. Benetan kezgarria da hori, baina are kezgarriagoa da oraindik kirol zerbitzuetako erabiltzaileen artean gazteek, —gehienak euskaldunak izanda—, gaztelaniara jo behar izatea aisialdiko ekintzetan. Kiroletako zerbitzuak, hortaz, gaur egungo eta etorkizuneko gazteen beharri-zanetara egokitu beharko ditugu, kirolean ere euskara erabiltzeko aukera izan dezaten. Horretarako, ezinbestekoa da orain arte gaztelaniaz antolatutako egitura hori euskaraz eskaintzen ahalegintzea.

Beharrian horietaz kargu harturik, Deba Garaiko udale-

tako euskara eta kirol zerbitzuek Kirola Euskaraz programari ekin zioten duela lau urte, kirola eta euskara bat egin guran, eta lanean aritu izan dira ordutik hona, emaitza ezin hobekak eskuratu direlarik: Futbol entrenatzailea eta Kirol entrenamenduaren oinarriak liburuak plazaratu dituzte; beken bidez, kirol desberdinetako fitxa didaktikoak prestatu dituzte entrenatzaileentzat, laster barru argitaratuko direnak, eta prestakuntza ikastaroak antolatu dituzte.

Deba Garaiko euskara eta kirol zerbitzuen ardura nagusietariko bat, bestalde, bailara mailan egindako lana handik kanpora zabaltzea da. Hori dela eta, ihardunaldiak prestatzen ari dira apirilera, euskara eta kirol alorreko teknikarientzat, Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren ordezka-

**S U M A R I O A**

- 1** Kirolean ere, euskaraz
- 2** Laburrak  
Lizardi jaio zela, 100 urte  
Kontuan hartzeko
- 3** HABEren egituraketa berria  
Deialdiak  
Euskararen festak
- 4** Izen-abizenek  
Lehen begiratuan  
Iritzia

riak ere bertan izango direlarik. Ihardunaldiok balio izango dute Kirola Euskaraz programaren nondik norakoak ezagutzera emateko eta beste herri eta bailara batzuk kirola euskalduntzeko ekimen horretara erakartzeko. Halaber, kirola euskalduntzeko Euskal Herri mailako koordinazio gunea sortzeko aukera ezin hobea izan daitezke, Gipuzkoa aldean ahalegin berean ari diren beste zenbait udal eta erakunderen arteko harremanak sendotzeari begira. Aurrerantzean, beraz, berebiziko garrantzia izango du arlo hori jorratzen dutenen egin-beharrekoak norabide berera zuzentzeak.



## LABURRAK

**1** 990eko otsailaren 13an irten zen airera Arrasate Telebistaren lehen emankizuna, Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkartearen ekimenez sortua. Komunikabideetan euskararen erabilera sustatzea eta herritarrei hurbileko informazioa eskaintzea ziren erronka nagusiak orduan eta baita gaur egun ere. Eskaintza hori osatzearren, Arrasaten martxan ziren beste zenbait komunikabideen egiturekin batera, ARKO, Arrasate Komunikabideak elkarteak sortu zuten eta bertan biltzen dira guztiak gaur egun.



Kalitatearen aldeko apustua nagusi da eta zeregin horretan ari dira buru-belarri ATB-n lanean diharduten hamabost profesionalak. Arrasate Telebistak astegunetako emisioa aireratzten du eta, oro har, herritarren erantzuna handia dela esan daiteke. Halaber, herrietako komunikabideen artean eredu bilakatu da ATB eta bertan landutako hazia proiektu askotan da nabaria. Urte askotarako, bada!

**D** urango Berbaro Euskara Taldeak antolaturik, martxan da jadanik "Ipuin labor, Bertso paper eta Komiki Lehiaketa". Aurtengoa seigarren deialdia da eta ibilian-ibilian, oihartzun handia lortu du lehiaketak eskualdeko eskoletan. Ipuinak, bertsoak eta komikiak martxoaren 28a baino lehen bidali behar dira taldearen egoitzara. Epaimahaia apirilaren 22aren inguruan kaleratuko du finalisten zerrenda eta behin-betiko erabakia apirilaren 26an emango da jakitera jendaurrean.

## LIZARDI

Olerkaria  
eta bere lana  
100 urte eta gero

**A**pirilean ehun urte izango dira Jose Maria Agirre "Lizardi" jaio zela. Parada egokia izan daiteke Lizardik euskal kulturari egindako ekarpenari eta orduko euskal giroari gainbegiratu bat egiteko. Zarautzen jaio zen 1896ko apirilaren 18an. Madrilen Zuzenbidea ikasten ari zela, ahaztuxea zuen euskara berreskuratzeari ekin zion eta Bilboko *Euzko Deya* aldizkarian argitaratu zituen lehen

olerkiak. Animatzaile nekagaitza zen: Primo de Rivera-ren diktaduran *Euskaltzaleak* elkarteko kide eta bultzatzaile nagusienetarikoa izan zen; euskarazko egunkari bat kaleratzeko proposamena landu zuen eta euskal kulturaren aldeko ospakizunak antolatzen ihardun zuen. 1930etik aurrera poesiari lotu zitzaion eta urte

horretan ikusi zuen argia bere olerkirik ezagunenak, *Urte-giroak* izenekoak. 1932an *Biotz-Begietan* olerki bilduma plazaratu zuen eta 1934an, Lizardi hil eta gero, *Euskaltzaleak* elkarteak *Umezurtz-Olerkiak* poesiak eta *Itz-lauz* prosazko lana argitaratu zituen. Gazterik hil bazen ere, berebiziko lana egin zuen euskara literatur hizkuntza bihurtzeko, eta edozein arlotan erabiltzeko gai izango zen goi mailako euskara izateko. Hitz bakoitzari adierazkortasunik handiena emanez, hizkera poetiko berriaren sortzailetzat jo daiteke.

**Zarautzen, Donostian eta Tolosan** egingo dira Lizardiren omenezko ekitaldirik garrantzitsuenak: mahainguruak (Lizardi, Rimbaud etorri duk hitz galdezka izenburupean), hitzaldiak (Mende hasierako abangoardia eta Lizardi, Lizardi eta Modernitate, Lizardiren Poesia, etab.), antzerkia (Ezkondut ezin zitekeen mutilla), Lizardiri buruzko CD-ROMaren aurkezpena, erakusketa, kantaldiak eta olerki emanaldiak, beste batzuren artean.

## KONTUAN HARTZEKO

## Bi harriz, lau xori ekitaldiak

Biarritz Culture elkarteak eta Euskal Kultur Erakundeak antolaturik, Bi harriz, lau xori izeneko jaialdiak egingo dira martxoaren 19tik 24ra bitartean. Beste zenbait ekitaldiren artean, Bilboko Euskal Museoa moldaturiko *Senitarte* argazki-erakusketa ikusi ahal izango da. Poesia emanaldi, kantaldi eta antzerkiez gain, hizkuntza minorizatuei buruzko mahainguru ere egingo da. Ekitaldiak Miarritzeko Colisée aretoan izango dira.

## Komikiak 100

Komikiak 100 izeneko erakusketa ibiltaria abian da jadanik eta hurrengo hilabeteotan Euskal Herriko bazter gehienetan ikusgai izango da. Txabi Basterretxeak eta Joxean Muñozek zuzendu duten bilduma honek hiru arlo nagusi jorratzen ditu: *Komikiaren hizkuntza*, *Komikigileen lanbidea* eta *Komikia eta Euskara*. Horiez gain, euskal komikigileen lanik adierazgarrienak ere ikusgai izango dira; horien artean aipatzekoa da 1918an *Euzko Deya* aldizkarian argitaratu zen euskarazko lehen komikia.

## ERAGINKORTASUNA HELBURU EGITURA BERRIAK

Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak otsailaren 13an onartu zuen HABEren arau organikoak eta funtzionamendua zehazten dituen Dekretua.

**E**raketa organiko berria 1994ko Dekretuaren egokitzapena da. Izan ere, orain arteko antolaketa Erakundearen arloak gehiegi zatikatzea eta iharduerak motelaztea eragiten zuen, eta bertan ezarritako arduren banaketa ez zettorren bat HABEren norabide berriarekin. Hori guztia kontuan hartuz, HABEko Zuzendaritza Batzordeak landu eta Kultura sailburuak proposaturik, Jaurilaritzako Kontseiluak HABEren eraketa organiko eta funtzionala onartu zuen otsailaren 13an.

Helduak Berreuskalduntzeko eta Alfabetatzeko Erakundeak Jaurilaritzako Kultura Sailaren menpe segituko du, orain arte bezala. Bestalde, Erakundea sortzeko Legeak agindutakoaren arabera, ondokoak dira Dekretuan aurikusatiko gobernu sailak:

*Zuzendaritza Batzordea, Batzorde Akademikoa, Zuzendaritza batzordeburua eta zuzendari nagusia.*

Egitura berriak HABEren iharduerak dinamizatzea du helburu eta horrela, gobernu sail bakoitzari dagozkion egitekoak garbi zehazten dira. Hizkuntza Politikarako sailburuordea Zuzendaritzako buruordea izango da eta, Erakunde zuzendari nagusia buru delarik, Batzorde Akademikoa norabide akademiko eta pedagogikoak aztertzeaz eta Zuzendaritza Batzordeari proposatzeaz arduratuko da.

HABEren zerbitzu administratiboetara dagoen zerekin, bi zerbitzu izango dira aurrerantzean: *Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzua* eta *Kudeaketa Zerbitzua*, zuzendari nagusiaren menpekotasun zuzenean biak.

## DEIALDIAK

### EUSKALGINTZAren emaitzak

Euskararen sustapena, garapena eta normalizazioa lortzeko bidean, Kultura Sailak Euskalgintza programa kaleratu zuen iaz, euskararen inguruko iharduerak eta proiektuak diruz laguntzearen. Besteak beste, euskararen erabilera hainbat arlotan bultzatzeko proiektuek, euskal literatura sustatzeko ekimenek edota euskararen oinarritzako azpiegiturak garatzeko teknologia berrietan oinarritutako programek lortu dute laguntzarik. Deialdiaren irizpideen arabera, aurkeztutako ihardueraren edo proiektuaren eragin-maila, originaltasuna eta bideragarritasuna eta proiektua garatzen den lurralde eremua dira, besteak beste, kontuan hartutako faktoreak.

Deialdia zenbakitan:

- ✓ Euskal Autonomi Elkarte 61 entitatearen eskutik, 80 proiektu aurkeztu ziren; horietatik, 56k lortu zuten dirulaguntzarik.
- ✓ Guztira 64.590.000 pezeta banatu ziren.
- ✓ Kultura elkarteek, taldeek eta fundazioek eskuratu dute zatirik handiena: 50.540.000 pezeta.

**P**ausoz pauso, euskararen bidea osatuz, badatoz irakurle, euskararen inguruko jaiak. Urteroko zitari hutsik egin gabe, ikastolen eta, oro har, euskaraz diharduten taldeen aldeko festak zerrendatzeko tenorea heldu zaigu. Kalifornian 70eko hamarkadan ospatzen ziren ekitaldiak eredutzat hartuz, 1977an antolatzen zuten Beasainen eta Lazkaon ikastolen aldeko lehen jaiak. Ibilbidea osatuz, euskarari eta ikastolei sostengua emateko parada eskaini zuen ekitaldi hark: ekimenak berehalako oihartzuna lortu zuen eta urte gutxi tarteaz, antzeko ekimenak jarri ziren martxan herrialde guzti-guztietan. Geroztik, urtero antolatzen ohi dira jaiak horiek: Gipuzkoako Kilometroak, Bizkaiko Ibilaldia, Arabako Araban Euskaraz, Nafarroako Nafarroa Oinez eta Iparraldeko Herri Urrats. Ondoko mapa gainbegiratu zehatzarekin, ia-ia etenik gabeko festa zaparrada maiatzean hasiko da. Zalantzarik gabe, mardul eta gogotsu dator aurreko euskararen festen agenda!

## Euskararen jaiak



**Angeles Líbano Zumalakarregi**

Leku izenak arakatzen

Historialaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da. Euskal Herriko Erdi Aroko leku-izenak biltzen dituen *Toponimia medieval en el País Vasco (I)* liburua koordinatu du. Egileak dioenez, egindakoaren zati txiki bat baino ez da argitara eman, hau da, soil-soilik A letraz hasten diren toponimoak aurkituko ditu irakurleak lehen ale honetan. Jadanik bilduta dagoen materiala kaleratzea nahiko luke egileak, baina

horretarako dirulaguntzak lortzea ezinbestekoa da. Lehen zati honek argia ikus zezan, EHUK eta Arabako Diputazioak diruz lagundu dute. Euskaltzaindiak Lizarran egin zituen Onomastika eta Toponimiako hirugarren ihardunaldietan aurkeztu ziren lehen aldiz Libanok bildutako datuak eta halaber, Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* liburu sailaren barruan eman da argitara lehen alea.

**Joseba Erkizia**

EIZIEko buru berria

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak (EIZIE) zuzendaritza batzordeko kide berriak izendatu zituen otsailaren 24an egindako biltzar nagusian. Joseba Erkizia dugu geroztik, elkarteak lehendakaria, Anjel Loberak utzitako lekua betetz. Elkarteak kideen artean harreman gehiago izatea eta

EIZIE gizartean ezagunago bihurtzea dira oraintxu hartu duen kargutik Joseba Erkiziak bideratu nahiko lituzkeen zereginak. Horiez gain, *Senex* aldizkaria eraberrituaren bidean sakontzea eta euskal itzulpenen katalogoa kaleratzea lehentasunezko ekinbidetat jo zituen Erkiziak postu berriaren jabe egin orduko.

**IRITZIA****Euskara mundu zabalean**

Otsailean Parisen izandako Expolangues azokan, euskarak bere lekua izan zuen; apirilean, Madrilen izango den Expolinguan ere bertan izango da Eusko Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren eta Nafarroako Gobernuakoa Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren eskutik. Azoka hauetan gure presentzia bermatzea garrantzizkotzat jotzen dugu, tresna egokiak baitira, alde batetik, euskararen eguneroko errealitatea gure esparru hurbiletik atera eta nazioarteratzeko, hau da, munduko hizkuntzen artean euskarak ere bere tokia baduela erakusteko, eta, bestetik, kanpoko esperientzien argitan, gure hizkuntza aberasteko. Euskarak, bere normalizazio eta modernizazio bidean aurrerapausoak eman ditzan, bide berriak jorratu behar ditu; horien artean kokatzen dira eguneroko lanaren ondorioz lorturiko emaitzen erakuspena. Erakusketa eta azoketan parte hartzeak, halaber, gure Sailordetza zer den eta zer egiten duen azaltzeko aukera ezin hobea eskaintzen digu.

Josune Ariztondo  
Hizkuntza Politikarako  
sailburuordea

**Lehen begiratuan**

**E**uskarak egin duen bidean leku aparta izan dute ondoko iruditik guri begira ageri direnek. Aintzindariak, hots, bidegileei eskainitako omenaldi xume gisa har daiteke, bada, ondokoa: *Bidegileak* bildumaren azken alean Xalbador, Lauaxeta, Lizardi eta Manex Erdozaintzi-Etxarten urratsak bildu ditu Hizkuntza Politikarako Sailordetzak.



XALBADOR  
ESTEBAN URKIAGA, LAUAXETA  
JOSE MARIA AGIRRE, XABIER LIZARDI  
MANEX ERDOZAINZI-ETXART

**Euskararen Berripapera** zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako  
Sailordetza**

Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

Helbidea: .....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

